

2020-09-22ko EZ-OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2020ko irailaren 22an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ez-ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Gorka Murua Macuso izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu Ortiz.

-Azaldu ez diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Olaia Nieto Legarra eta Leticia Aristi Oria.

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Ana Jesus Leunda Gurruchaga.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jose Ramón Epelde Irizar, María Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Lehenengo aipatu behar da Koronavirus -Covid 19- izurritearen alarma egoera ikusita eta korporatiboen eta hiritarren osasuna babesteko, Alkatearen Dekretuaren bidez neurri batzuk hartu direla bilera hau egiteko eta Pleno Aretoa txikia dela ikusita, hauek izango dira hartutako neurriak:

1.- Bakarrik bileran zuzenean parte hartuko dute korporatibo hauek: Alkatea, EH Bildu udal taldearen bozeramailea, EAJ/PNV udal taldearen bozeramailea eta udaleko idazkaria.

2.- Beste zinegotziek, bere botoa delegatuko dute bere taldearen bozeramailean idatzi baten bidez. Bozeramaile bakoitzak hainbat boto izango ditu delegazioaren arabera.

Ondorioz:

-Leticia Aristi Oria, Olaia Nieto Legarra eta Mikel Iturbe Saizar, EH Bildu udal taldearen zinegotziek beren botoa Noelia Lataburu Ortiz zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta hiru boto gehiago izango ditu: 4 boto.

-Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde, EAJ/PNV udal taldearen zinegotziek beren botoa Ana Jesús Leunda Gurruchaga zinegotzian delegatu dute. Orduan, berea eta bi boto gehiago ditu: 3 boto.

3.- Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bileraren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko

7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTAK ONATZEA (2020-06-30; 2020-07-21).

Udalbatzak, aho batez, 2020ko ekainaren 30eko ohiko bilkuraren akta onartu du.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020/149 DEKRETUTIK 2020/189 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2020/149 dekretutik 2020/189 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

IRAILEKO KULTUR EKITALDIEN EGITARAUA ETA AURREKONTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak proposamen hau aurkeztu du.

Irurako Kultur mahaiak hausnartu zuen, COBID 19 pandemiak eragindako krisiari aurre egiteko segurtasun neurriak aplikatuta, San Migelak 2020 herriko jaiak antolatzeak, ez zuela konturik.

Hala ere, mahai honek, kultur ekitaldien egitarau oparoa prestatu du irailaren 4tik 29ra bitartean.

Gainera, Ametsa Pilota Elkarateak aurten ere, “2. SAN MIGEL XARE Irekia txapelketa antolatu du irailaren 5etik urriaren 3a bitartean.

Ondorengo zerrendan laburbiltzen da izango diren ekitaldiak eta udalari eragingo dion kostua:

Eguna	Ekitaldia	Kostua
Irailaren 5etik,urriaren 3ra	2. San Migel Xare Irekia	2.600€
Irailaren 4a, ostirala	Txikiren bakarriketa	580€
Irailaren 12a, larunbata	Prozak kale ikuskizuna	2.420€
Irailaren 19a, larunbata	Ginkana txirrendarekin	0€(Irura Bizik antolatua)
Irailaren 20a, igandea	Kiki, Koko eta Moko Pailazoak	1.265€
Irailaren 26a, larunbata	Orientazio jokoak familientzat	1.784,75€
Irailaren 26a, larunbata	Fun Box Factory	2.904€
Irailaren 27a, igandea	Bertso saioa	1.801,64€
Irailaren 29a, Igandea	Demode Quartet	3.872€
Guztira:		17.227.39€€

Alkateak erantsi du “Orientazio Jokoak familientzat” ez dela egingo, ez dagoelako giro egokia jokoak burutzeko.

Proposamena onartzen da, 5 boto alde (EH Bildu) eta 3 abstentzio (EAJ/PNV).

Ana Jesús Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du, berriz ere informazio falta izan dutela eta udalbatza aurretik informatuta egon behar zutela. Horregatik abstenituko direla.

Alkateak erantzun du informazioari buruz, azken udalbatzan behintzat, aurrekontuaren kopurua esan zela eta kultur mailan bi bileretan komentatu dutela. Datu gehiago behar bazuten han izan dituztela aukerak galdetzeko. Gainera, esan zuela kopurua gehiago izango zela. Kultur bileretara konbidatuta izan zirela, baina ez direla azaldu.

Ana Jesús Leunda zinegotziak erantzun du, batzordea ez zela egin eta ez dutela jakin aurrekontuaren kopurua.

LAUGARREN GAIA

“COVID-19AGATIK SORTUTAKO OSASUN-KRISIARI AURRE EGITEKO ERDI ETA HEGO AMERIKAKO HERRI BATZUETAN” EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Zioen azalpena

COVID-19aren pandemiagatik sortutako gaur egungo osasun-krisiaren ondorioz, hainbat herrialdek derrigorrean ezarri behar izan dituzte konfinamenduak, etxeratzeko aginduak, mugitzeko murriztapenak eta kutsapenen kurbari eusteko beharrezko beste neurri batzuk. Kasu guzti-guztietan, ezinbestekoa da herritarrek egoera zein den ulertzea eta laguntzea, mehatxu horri aurre egiteko.

Edonola ere, Mundubat Fundazioa, Herrien Talde Juridikoa edo PARES Fundazioa GGKE-ek egindako zenbait txostenetan azaldu denez, Kolonbian, Hondurasen, Guatemalan eta El Salvadorren baliteke bertako gobernuek osasun-krisi hori erabiltzea bitzta publikoaren

bermilitarizaziorako prozesua, atzerakada demokratikoak eta giza eskubideen urraketak justifikatzeko esparru moduan. Hori dela eta, atzera egingo lukete (urteak edo hamarkadak ere bai) herrialde horiek eta nazioarteko erkidegoak egin duten ahaleginean diktadura militarren eta barruko gatazka armatuen iragana atzean uzteko. Tristeia izan arren giza eskubideen urraketan historial luzeagatik ospetsuak diren indar publikoen ez-zigorgabetasunean erdietsitako lorpenak eta erkidego etniko zein landa-erkidegoentzako segurtasun-mekanismoen konkista arriskuan daude.

Konfinamenduko epealdien ondorioz, biztanle-sektore handiak txirotasunean erori dira, eta, ekonomia informalean menpe bizi direnez, ez dute diru-sarrerarik sortzeko modurik, ezin direlako kalera irten. Gainera, oso kontuan hartu beharra dago oinarrizko saskia garestitu egin dela hilabeteotan. Hori dela eta, ezin dute erosi ez kutsapena prebenitzeko behar den osasun-materialik ez hain oinarrizkoa den janaririk. Osasun-arlokoa eta, batez ere, elikadura-arlokoa den krisiari aurre egiteko asmoz, herritarrek laguntza humanitaria eskatzeko berezko ekimena jarri dute abian, eta, horretarako, zapi gorriak jarri dituzte gosea eguneroko mehatxu bihurtu den etxeetako leihoetan. Hala ere; badirudi kasuan kasuko gobernuen erantzunik jaso ez dutela.

Orain indar militarpean dauden hirietan, modu arbitrarioan ari dira jendea atxilotzen, eta, ostean, inolako bitartekaritza judizialik gabe askatasuna kentzen diote "prebentziorako zentroetan"]. Bertan, atxilotuak atxikitzen dituzte osasungarritasunik gabeko baldintzetan, pilatuta eta elikagai askorik gabe. Hori dela eta, leku horietan, jende osasuntsua kutsatzen da. Herritarrek goseteagatik egin dituzten protestaldietan, manifestariak ere hil dituzte indar militar horiek.

Estatuaren bermilitarizaziorako ez ezik, badirudi osasun-larrialdia Bake Hitzarmenak betetzen ez dituzten ekintza militarren garapenerako aitzakia ere badela. Kolonbian, hain zuzen ere, ez dute Legez Kanpoko Erabilerako Laborantzak Ordezkatzeko Programa betetzen, nahiz eta 2016ko Bake Hitzarmenen funtsezko osagaia izan. El Salvadorren, Polizia Nazional Zibila ezeztatzen ari dira (1992ko Bake Hitzarmenen ondorioz sortu zen, 1960-1970eko diktadura militarren ondorioz ezarritako estatuko aurreko indar publiko militarrek ordezkatzeko eta atzean uzteko, aurretiazko hamarkadetan hainbatetan urratu zituztelako giza eskubideak), eta eguneroko bizitzaren kontrola botere militarren esku dago berriro.

Guatemalan, esate baterako, laguntza humanitario eta sanitario urria ere kudeatzen du indar militarrek, erakunde sanitario edo humanitarioek kudeatu beharrean. Hori dela eta, laguntza horiek (elikagaiak eta osasun-materiala) tokiko alkatearen edo gobernu nazionalaren aldeko bakarrik ematen zaizkie.

Herrialde horietako komunikabide nagusiek ez dute egoera horien berri ematen, baina kazetan bateratuek eta alternatiboek, bai, ordea. Hori dela eta, zentsura, erasoak eta jazarpen telematikoa jasaten ari dira. Guatemalan, agintariek Zigor Kodeari heltzen diote, gaur egun ofiziala ez den edozein informazio zentsuratzeko. Herrialde horretan bertan (ustelkeria-indizeak nahikoa kezkarriak direla kontuan hartuta), susmatu egiten dute osasun-larrialdiari aurre egiteko nazioarteko eta nazio-mailako fondoak desbideratzen ari direla.

Hondurasen, giza eskubideen erakundeek adierazi dutenez, indar militar eta polizialek hainbatetan urratu dituzte giza eskubideak, eta torturak egin dituzte konfinamenduko testuinguruetan; esate baterako, urperatzea, gas negar-eragilez bustitako eskuoihalak jartzea edo deskarga elektrikoak ematea, baina, batez ere, LGTBI erkidegoari (oso-oso estigmatizatuta dago herrialde horretan) eta giza talde horren giza eskubideen defendatzaileei. Haien esanetan, konfinamenduko lehenengo hilabeteetan, tratu txarrak eta torturak jasan zituzten 6.000 atxilotu baino gehiago egon ziren, eta, biktimen artean, kazetan alternatiboak zeuden. Gainera, lehenengo bi hilabeteetan, 30 LGTBI baino gehiago

espetxeratu eta jipoitu dituzte. Identifikazioa ezkutuan daramaten poliziek emakume transexualak jazarri, eraso eta iraindu egiten dituzte. Horrez gain, haiei zerbitzu sexualak ematera behartzen dituzte, arau-hauste txikiak egiten dituztenean; esate baterako, identifikazio-agiria ez eramatea. Salaketak aurkeztu badituzte ere; badirudi justizia-sistema desagertu egin dela. Oso deigarria da harrika eraildako emakume transexuala agertu izana.

Hainbat eta hainbat erakunde humanitario bat datoz adieraztean oso kezkatuta daudela Kolonbiako, Guatemalako, Honduraseko eta El Salvadorreko gobernuek osasun-larrialdiari eman dioten tratamenduagatik osasun-larrialdiaren ostean demokraziak atzera egin dezakeelako, bertako estatuak diktatorialagoak, errepresiboagoak eta militarizatuagoak izan daitezkeelako eta giza eskubideak, zuzenbide-estatua eta adierazpen-askatasuna iragandako hamarkadetako atzerapenera itzuli daitezkeelako.

2018ko urtarriletik eta 2020. urte honetako abendura arte, Estatu espainola Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluko kidea da. Bere agintaldiaren ondorioz, erantzukizun berezia dauka, herrialde kideetako giza eskubideen urraketak behatzeko, jakinarazteko eta salatzeako orduan eta kontseilu horri bere mekanismoak ezarri ditzala eskatzeko orduan, eskubide horien defentsa bermatuta eta babestuta egon dadin.

Aurrean adierazitako guztiaren ondorioz,

1. Irurako Udaleko Korporazioak honako hauxe eskatzen die euskal instituzioei (Eusko Jaurlaritzan eta Foru Aldundiei):

1.1. COVID-19agatik sortutako osasun-krisiari aurre egiteko gobernu-neurrien esparruan, Kolonbiako, Guatemalako, Honduraseko eta El Salvadorreko herrialdeetan giza eskubideak urratzen direla salatzea erakunde eskudunen aurrean.

1.2. Kolonbiako, Guatemalako, Honduraseko eta El Salvadorreko herrialdeetako bake-prozesuekin erabateko konpromisoa dutela eta bertako giza eskubideak errespetatzen dituztela adieraztea berriro.

1.3. Mozio hau aipatutako herrialdeetako ordezkari instituzionalei bidaltzea, euskal herritarrek arlo horretan dituzten proposamenak kontuan hartu ditzaten.

2. Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluko herrialde kidea denez, instituzio honek honako hauxe eskatzen dio Estatu espainoleko gobernuari:

2.1. Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Kontseiluko Salaketa Prozeduran, honako honexeri buruzko jakinarazpena egitea: COVID-19agatik sortutako osasun-krisiari aurre egiteko gobernu-neurrien esparruan, Kolonbiako, Guatemalako, Honduraseko eta El Salvadorreko herrialdeetako giza eskubideetan gertatu ahal izan diren urraketak; eta, batez ere, horrelako neurrien ondorioz El Salvadorreko (1992) eta Kolonbiako (2016) Bake Prozesuetan erdietsitako lorpenetan eman ahal izan diren atzerapausoak. Alde horretatik, hori ikertzeko batzordea sortzeko eskatzen zaio.

2.3. Kolonbiako, Guatemalako, Honduraseko eta El Salvadorreko Aldizkako hurrengo Azterketa Unibertsalean (AAU), egitate horien inguruko alarma sozialak eta GGKE-enak islatzea.

Udalbatzak erabaki du mozioa onartzea, 5 boto alde (EH Bildu) eta 3 abstentzio (EAJ/PNV).

BOSGARREN GAIA

“BEREZO UDAL ARIGUNEAK EUSKARAREN ARNASGUNEETAN ETA UDALERRI EUSKALDUNETAN” ADIERAZPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

BEREZO UDAL ARIGUNEAK

EUSKARAREN ARNASGUNEETAN ETA UDALERRI EUSKALDUNETAN

2018an, hainbat eta hainbat norbanakoren hizkuntza ohituretan eraginez, Euskal Herriaren luze-zabalean mingainak dantzaz eta belarriak adi jarri zituen EUSKARALDIA izeneko hamaika eguneko gizarte ekimena abiatu zen. Udalerrri euskaldunetan ingurukoetan baino eragiteko premia gutxiago izan arren, bazegoen nondik heldu; erdal korronteak ia oharkabean etengabe kolpatzen eta bere uretara eramaten baikaitu hemen ere egunero. Kontzientziak pizten jarraitzea da gure lana, eta eredu izatea ere badagokigu, noski. Udalerrri euskaldunak saretuz, haiek elkartuko dituen lurgunea osatzea da UEMAREN oinarrietako bat. UEMAKO herritarrok gure nortasunaren ikur nagusi den hizkuntza erabiltzeak zenbaterainoko garrantzia duen jabetzea eta inguruan eragitea lortu nahi badugu, ezin gara horrelako ekimen batetik kanpo geratu. Gogotsu ekin genien Euskaraldiaren lehen urratsei, eta lehen aldi hark eman zituen bere fruituak, baita gurean ere.

Oraingo honetan (2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra), ordea, gizarte ariketa horren bigarren olatua dator; harrokeriarik gabe, baina harrotasunez ekingo diogu bigarren oldarraldi honi ere. Oldarraldia diogu, bai. Garena erakusteko lotsaz bizi garela baitirudi batzuetan, eta zoritxarrez euskararen aurkako euri-jasak ez du ateririk. Hortaz, naturaltasunez eta asmo txarrik gabe, abesti hark dioen bezala, “...ez dugu beste inor mendean hartu nahi, etorkizuna hautatu ez besterik”. Gure hautua euskaraz bizitzen jarraitzea eta ingurukoak (euskaraz ez dakitenak edota euskaraz egiteko hainbesteko ohiturarik ez dutenak) ere gure altxor bizi honetaz gozatzeraz gonbidatzea izango da.

Bigarren aldi honek badu berritasunik. Lehen alditik honako jauzia nabarmena da: aurreko aldiak, norbanakoetan jarri ziren begiak; oraingo honetan, aldiz, entitateok (udal, erakunde, merkatari-ostalari, enpresa, elkarte...) ere parte hartuko dugu.

Udala osatzen dugun udal ordezkarioi eta langileoi herritarrentzat eredu izatea dagokigu. Guk hizkuntzarekiko hartzen dugun jarrerak eragina du beraiengan. Hori dela eta, udal honetan aspalditik gabiltza UEMAREkin elkarlanean lan eta zerbitzu hizkuntza euskara izateko aurrerapausoak ematen. Zenbait arlotan nahiko aurreratuta izan arren, badugu zer hobetua oraindik. Oraingo honetan, hain zuzen ere, zerbitzua euskaraz emateko gai garela adierazteaz gain, herritarren aurrean gure artean ere euskaraz egiteko ahalegin (edo hautu kontziente) hori azpimarratu eta ikusgarri egitea eskatzen zaigu Euskaraldian parte hartzeko; berezko zaigun hori gehiago ikusaraztea, alegia.

Udal honek idatzi honen bidez adierazi nahi du, Euskaraldian parte hartzeko “Barne ariguneak” eta “Kanpo ariguneak” (euskarazko ulermena %100ekoa den gunea; eta beraz, nahi duenak euskaraz aritu ahalko duen tokia) izendatu, ekimenari gogotsu heldu eta hura bultzatzeko/zabaltzeko konpromisoa hartu duela.

Geuk ere euskaraz egingo dugu, inoiz baino **gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan!**

Udalbatzak, aho batez, onartu du.

SEIGARREN GAIA
IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOTENAK JAKINARAZTEA.

Ez dago.

ZAZPIGARREN GAIA

GALDE -ERREGUAK.

Hauek izan dira:

a) Ana Jesús Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du, uztaileko udalbatzan 2020ko Aurrekontuaren bigarren kreditu aldaketaren gaia onartu zela, bere taldea abstenitu zela iruditzen zitzaiolako gastu batzuk murrizteko aukera zegoela eta ondorioz baita defizita jaistea ere eta idazkari kontu-hartzaileak horrela esan zuelako bere txostenean. Orain beste txosten bat jaso dute eta han, gastua hamar mila euro gehiagokoa dela eta defizita jaitsi baino areagotu egin dela hamar mila euro gehiagotan. Idazkari kontu-hartzaileak, kontuan izanda aurtengo zalantzak osasunean eta ekonomikoan, aholkatu du aurtengo defizita gutxiago izatea eta gastu arruntetan aukera dagoela. murrizteko Alkateari galdatzen dio ea begiratzen ari diren non murriztu.

Alkateak erantzun du, lehengoa, aipatzen duela aurreikusitako defizita nola geratuko den urte amaieran, likidazioa egiten denean. Defizit nagusia Diputazioak sortzen duela , gehiengo defizita bere aportazioaren murrizketa handia eragiten duelako. Egin diren gastuak ezinbestekoak izan direla (kultura, hirigintza...) egoerak behartzen zuela eta askotan dirulaguntzak ez galtzeko . Beste aldetik, inbertsio batzuk aurreragorako geratu direla, batez ere inbertsio potoloena eta etorkizunean gauza bera egingo dutela, ezinbesteko gastuak aurrera eramanez, nahiz eta jakin askotan defizita sortuko dutela. Hurrengo urtetan egin behar diren inbertsioak, kontu-hartzailearekin daramate lanetan, baina orain amaitu gabe.

Ana Jesús Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) erantzun du defizita murriztu daitekeela. Alkateak erantzun du, aurrekontu eztabaidan ikusi zen bezala, beste taldeak ez dituela gastu batzuk ikusten (berdintasuna, ingurumena...) .Zertan gastatua dela gakoa.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "www.irura.eus" helbidean.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:50an eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA